

**2013KO URRIAREN 31N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaika.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTAK. 2013ko irailaren 26ko eta urriaren 4ko akten onespena.

2013ko irailaren 26ko eta urriaren 4ko akten berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP) esan du 2013ko urriaren 4koa ez duela onartzen bera Pleno horretara etorri ez zelako. Bestearekin ados azaldu da.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE), 2013ko urriaren 4ko aktarekiko abstenitu egingo dela adierazi du, bileran parte hartu ez zuelako.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “2013ko irailaren 26ko akta onartu egiten dugu. 2013o urriaren 4koari buruz esan, akta horretan aipatzen dela guk bilera horri bizkarra eman geniola eta ez zait iruditzen hori denik egin beharreko irakurketa. Guk hasieratik aipatu genion Alkateari guztiak behintzat ezin genuela etorri, Seitik bostek ziur ezin genuen etorri. Informatika arazoak medio bi zinegotziok ostegun goizean enteratu ginen eta egun batetik bestera ezin genuen aldatu bakoitzak genuena. Jakin ba genekien adostasuna zegoela testuan eta Alkateari esan genion hori ez zela arazoa. Eskatu genion eguna aldatzeko eta hori izan zen arrazoa Plenora ez etortzeko. Irakurketa hori egitea iruditzen zaigu bakoitza mutur batean jarri nahi izatea dela eta ez gatoz bat horrekin, iruditzen zaigulako data behean inposatu egin nahi izan zela, premiazkotasuna ez zen arrazoa, izan ere aurreko egunean sententzia eman zen eta BILDUko hainbat eta hainbat udaletan osoko bilkurarik ez zen ospatu edo hurrengo asterako utzi zen. Guk, hain zuzen ere, hori eskatzen genuen , etorri genezakeen beste data baterako uztea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk uste dugu epea, epea dela. Saiatu ginen aldaketa horiek egiten, baina data jarrita zegoen eta egin beharra egon zen. Nik uste dut lehenengo aldia zela Plenoak egiten hasi direnetik, oposizio edo gainontzeko alderdi guztietako kiderik ez agertu izana. Horregatik egiten dugu guk, irakurketa hori.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Oker ez banago deialdia eginda zegoen eta komentatu genuen zuek ez zenutela etortzeko aukerarik, uste dut ostirala zela. Idazkariak esan zuen, behin deialdia eginda gero ezin zela atzera bota.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Egunaren bitxitasuna onartuko duzue. Plenoa ostegunetan egiten da eta nik uste dut gehienok astea antolatzen dugula ostegunak edozein momentutan libre edukitzeko osoko bilkura ospatu daitekeelako eta beste egunak hartuta eduki ditzakegu eta zer esanik ez, ostirala bada. Baina niri gehigarria egiten zait eta ez nago batere ados, esaten

denean bizkarra eman nahi izan zaiola. Hasieratik esan zen ezin ginela etorri eta ez beste edozein aitzakia.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guretzat benetan gaia larria zen eta bai edo bai egin beharrekoa zen. Ez gara hasiko esaten historian zer gertatu den, baina beste edozein gaitan, azaldu gara edo azaldu zarete edota esfortzu hori egin da, tokatu den egunaren kalterik gabe. Nahi denean esfortzua egiten da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Kasu honetan, batzuk Alemanian zeuden. Hori dena esan zen eta alferrikakoa da hortik aurrerako irakurketa. Esfortzuak egin dira, mozioak aurkeztu direnean batez ere eta gainera gure alderdiak. Azkeneko hamar urteetan ilegalizatuta egon zaretenean, hilabetean joan eta hilabetea etorri, zuen izenean geok aurkeztu genituen zuen mozio guztiak. Esfortzua egon da.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Aurrerantzean, hemen sortu den eztabaida hau gerta ez dadin, betidanik ohitura izan da, premiazko plenoa egin behar ezker, aurretik bozeramaileekin harremanetan jarri data adosteko eta denok jakinaren gainean egoteko.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ados.”

Horren ondorioz, 2013ko irailaren 26ko eta 2013ko urriaren 4ko aktak onartu dira. Lehenengoa aho batez eta bigarrenkoa, gehiengo soilarekin, hau da, BILDU eta ARALARKO aldeko botoekin.

2.- ZINEGOTZI KARGUAREN JABETZA HARTZEA. Hautagai izangaia: Santiago Urdampilleta Dos Santos jauna.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengoa dio: “ANA M^a CRESPO BLANCO andreak zinegotzi karguaren errenuntzia aurkeztu ondoren, 2013ko irailaren 26an egindako Plenoan errenuntzia hori onartu zen eta Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zitzaion, legalki zinegotzi kargua hartzea dagokion bosgarren hautagaiaren alde bidezkoa den egiaztatzea emateko, laugarrenak zinegotzi kargua ez hartzeko nahia azaldu zuelako. 2013ko urriaren 29ko datarekin, SANTIAGO URDAMPILLET A DOS SANTOS jaunaren alde emandako kredentziala jaso da.

SANTIAGO URDAMPILLET A DOS SANTOS jaunak, bateraezintasun eta ondasunen aitortzea aurkeztu du eta orain egin behar duena da zinegotzi karguaren jabetza hartu, apirilaren 5eko 707/1979 Erret Dekretuaren bidez ezarritako zin-egite formula baieztatuz.”

Jarraian, Alkate jaunak, SANTIAGO URDAMPILLET A DOS SANTOS jaunari legez ezarritako zin-egite formula irakurri dio, hau da:

¿Prometeis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS jaunak: "Prometo, sí".

Alkate jaunak (BILDU): "Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?"

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS jaunak: "Aitortzen dut, bai".

Horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza hartu du.

3.- HIGIEZIN ONDASUNEI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA. Aldaketaren hasierako onespena.

Ezagutzera eman da 2013ko urriaren 28ko Hazienda Batzordeko proposamena gai honen inguruan:

"1.- Ondasun higiezinari buruzko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzea:

ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ART.- Udal honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak ematen dion baimenaz baliatuta, ondasun higiezin hiritar eta landatarren gaineko zerga arautu eta eskatzen du.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA

2. ART.- Ondasun higiezinaren gaineko Zerga izaera erreala duen zuzeneko tributua da, eta Beasaingo udalerrian kokatuta dauden ondasun higiezinaren balioa zergapetzen du.

3. ART.- 1. Ondasun higiezin hiritar eta landatarren gaineko eskubide hauen titularitateak eratzen du zergaren egitate ezargarría:

- a) Ondasun higiezin ganean edo haiei atxikita dauden zerbitzu publikoen ganean dagoen administrazio emakida.
- b) Azalera eskubide erreala.
- c) Gozamen eskubide erreala.
- d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan adierazitako egitate ezargarrietako bat bertan ezarritako hurrenkeran gauzatzeak berarekin ekarriko du ondasun higiezina ez gelditzea apartatu horretan jasotzen diren beste modalitateei lotuta.

3. Ondasun higiezin bat udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta badago, zerga honen ondorioetarako ulertuko da horietako bakoitzekoa izango dela dagokion udalerrrian hartzen duen azaleraren arabera.

4. ART. – Ez daude zerga honi lotuta errepideak, bideak, kaleak, gainerako lehorreko bidea eta gune libreak, betiere herri jabarikoak badira eta aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

III. SUBJETU PASIBOA

5. ART.- 1. Pertsona natural eta juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3 apartatuan aipatutako entitateak dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, beti ere zerga honen zerga- gaia kasu bakoitzean eratzen duen eskubidearen titularrak badira.

Ondasun higiezin berean emakida- hartzaile bat baino gehiago ageri denean, kanon handiena ondaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa halaxe aplikatuko da, eta horrek ez du eragotziko subjektu pasiboak jasandako zerga kuota zuzenbide komunaren arauen arabera jasanarazi ahal izatea.

Zergaren subjektu pasibo izan gabe ondasun demanialak edo ondarezkoak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei jasanaraziko die Beasaingo udalak zergaren kuota likido osoa.

Era berean, zergadunaren ordezkoko gainerako emakid hartzaileen ganean jasanarazi ahal izango du haiei dagokien kuota likidoaren zatia, eta zati hori bakoitzak ordaindu behar dituen kanonen arabera izango da.

IV. OINARRI ZERGAGARRIA

ART. 6º- 1. Zerga honen oinarri zergagarria, ondasun higiezinaren balioa izango da.

2. Oinarri ezargarria zehazteko, ondasun higiezinaren balioa, beraien katastroko balioa, erreferentzia gisa merkatuan duten balioa hartuz finkatuko dena, berau inoiz gainditzeko.

V. KUOTA, SORTZAPENA ETA EZARRALDIA

ART. 7º- 1. Zerga honen kuota osoa oinarri ezargarriari Ordenantza honetako eranskinean azaltzen den karga tasa aplikatuz ateratzen den emaitza izango da.

2. Kuota likidua kuota osotik ordenantza honetan onartzen diren hobariak gutxituz lortuko da.

ART. 8º- Hobariak:

a) Kuota osoaren gaineko hobaria, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute, honako ondasun higiezinaren kasuan: Obra berrikoak nahiz haiekin parekagarri diren eraberriketakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inbulariarioko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta beti ere denbora horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.

b) Kuota osoaren gaineko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean.

Emakidaren balio-denbora: urtea.

Eskaria aurkezteko epea: urtarrilaren 1etik 31ra.

Emakidarako baldintzak:

- Ordenantza honen eranskinean xedatutako balio katastralaren kopurua gainditzen ez duen ohiko etxebizitza (biztanleen udal-errolako datuen arabera).

- Titularrak edota onuradunak ohiko etxebizitza denez kanpo beste ondasun higiezinaren jabe ez izatea (ez jabetza osoan ez eta partzalean ere), garaje

bat, trasteleku bat eta dagokion kasuan, bere jarduera profesionalaren lokala izan ezik.

Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskari-orria beteta.

- Foru Aldundiko Gizartekintza Zerbitzuak igorritako familia ugariaren titulua indarrean.

- Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo, beste ondasun higiezinaren batzuren jabea ez izatearen zinpeko aitortpena.

- Eskatzailea ordainagiriaren titularra ez denean: etxearen jabearen zinpeko aitortpena, ordain agiria eskatzaileak ordaindu duela aitortuz.

Zergaren ordainagirian etxebizitzaz gain garaje, trasteleku etab. jasotzen badira, hobaria etxebizitzari dagokion kuotaren gainean aplikatuko da soilik.

Hobari hau bateraezina izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aplikagarri den beste edozein hobarirekin.

c) Kuota osoaren gaineko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta, dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren. Hobari hau, gehienez, 5 urtetan aplikatuko da.

Kasu bakoitzean, aplikatuko den hobariaren ehunekoak, Ordenantza honen eranskinean zehaztuko dena izango da.

ART.9º- 1. Hobariak subjektu pasiboak eskatu behar ditu.

ART. 10º- Salbuespenak:

12/1989 Foru Arauak aurreikusitakoak, hau da:

1. Hurrengo ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Estatuarenak eta toki entitateenak, baldin eta zuzenean herritarren segurtasunerako eta hezkuntzaren nahiz espetxeen zerbitzurako jarriak badira, eta Estatuak defentsarako dauzkanak.

b) Udalerrien jabetzako auzo ondasunak eta esku komuneko herri basoak. Era berean, salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Udalerrien, udal organismo autonomoen edo udalherri horiek erabat partizipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako udalerrien lurraldean kokaturik badaude.

2. Mankomunitateen, beren organismo autonomoen edo mankomunitate horiek erabat partizipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako mankomunitateek jarduten duten lurralde eremuan kokaturik badaude.

c) Gurutze Gorriarenak eta erregelamenduz zehaztuko diren gisa horretako beste entitateenak.

2. Era berean, eta eskaera aurrez aurkezturik, ondoko haueksalbuetsiko dira:

a) Erregelamenduz zehaztuko diren hazkunde moteleko espeziez landatutako mendien azalera, bere aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoa denean, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezie horri berez dagokiona bada.

Orobat, baso berritzen edo birlandatzen diren mendien azalera, baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuei edo plan teknikoei jarraiki egiten bada. Paragrafo honetan aurreikusten den salbuespenak hamabost urtez iraungo du, eskaera aurkeztu ondorengo zergalditik aurrera kontatuta.

b) Eliza Katolikoarenak, Estatu Espainiarrak eta Vatikanoko hiriak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatutako Akordioan jasotakoaren arabera, eta legez onartuta dauden elkarte konfesional ez-katolikoarenak, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren indarrez izenpetutako lankidetzakordioetan ezartzen den eran.

c) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen indarrez salbuespen hau aplikagarri duten ondasun higiezinak, eta elkarrekikotasun baldintza egonez gero, baita atzerriko gobernuenak ere, beren ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrek nahiz beren organismo ofizialek erabiltzekoak direnean.

d) Trenbideek hartutako lurrak eta lur horien gainean dauden eraikinak, baldin eta horiek geltoki edo biltegi gisa nahiz linea horiek ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Beraz, ostalaritza establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritza eta aisialdi guneak, enplegatuentzako etxebizitzak, zuzendaritzako bulegoak eta lantegiak ez dira salbuetsita egongo.

e) Monumentu izaera duten edo monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko a) letran jasotako moduan. Salbuespen hau kalifikatuta nahiz inbentariatuta dauden kultur ondasunei aplikatuko zaie, beti ere uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko b) letran jasotako moduan. Salbuespen Indarrean dagoen testua horrek bakarrik hartuko ditu babes bereziko edo babes ertaineko erregimenen barruan sartutako ondasun higiezinak, kalifikatuak izan edo inbentariatuak izan, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

Era berean, ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 44. artikuluan aipatutako arkeologia zonetan kokaturik daudenean –zona horiek Kultur Ondasun gisa izendatuta egon behar dute eta kalifikatuak nahiz inbentariatuak izan-, baldin eta eskuhartze arkeologikoren bat bertan egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako Sailak erabakitzen badu aurkitutako aztarnak bertan mantendu behar direla ezer kendu gabe eta tokiz aldatu gabe.

f) Onarri ezargarria 600 eurotik gorakoa ez duten ondasunak.

g) Unibertsitate Publikoak bere helburuak betetzeko atxikita dauzkan ondasunak, eta hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuenak, erabat edo zati batean itundutako ikastetxeak diren bitartean.

Apartatu honetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, interesatuek eskaera aurkeztu behar diote alde zurretik udal eskudunari.

Ematen diren salbuespenek eskaera egin eta ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

ART. 11º- 1. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

2. Zergaldia bat dator urte naturalarekin.

VI. KUDEAKETA

ART. 12º- 1. Zerga honen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren eskueta utz daitezke, Udal Batzarrak erabakitako moduan (Udalak erabakitako eduki eta eremuarekin alegia). Horretarako bidezko hitzarmena izenpetuko litzateke.

2. Udal erabakia G.A.O.n argitaratuko da.

13. ART. Ohiko bizilekua ez direlako errekarua duten bizileku erabilerako ondasun higiezinak.

1. *Subjektu pasiboaren– edo alokatzearen edo erabilera lagatzearen bidez-hirugarrenen ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak, Ordenantza honetako eranskinean jasotako errekaruari lotuta egongo dira.*

2. *Bizileku erabilerako ondasun higiezintzat joko dira, katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak sartuko dira, baldin erregistroko finka bakarra badira.*

3. *Errekarguaren subjektu pasibo izango dira zerga honen subjektu pasiboak.*

4. *Errekargua, errekarua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da, eta kuotarekin batera galdatuko da.*

14. *ART. Ohiko bizilekutzat jotzea.*

1. *Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin eta zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.*

2. *Udal erroldan inor erroldatu gabeko egiazko ohiko bizilekua egiaztatzeko, udalerrian eskumena duten lurralde Administrazioetako edozeinetan egindako zerga aitortpenak erabili ahalko dira. Zerga aitortpen horietan, ohiko bizilekutzat deklaraturik agertu beharko da zerga honi lotutako bizilekua. Zerga aitortpen arteko kontraesanik izanez gero, edo zerga aitortpenik egiteko betebeharririk ez bada, subjektu pasiboaren, errentariaren edo lagapen hartzailearen beste frogabide batzuk aurkezteko aukera izango da.*

Egiazko ohiko etxebizitzat hartuko da, egiaztatzen bada ondasun higiezinaren ematen dela 183 egun baino gehiago urtean.

15. *ART. Errekargua aplikatuko ez zaien kasuak.*

Sujetu pasiboaren edo hirugarrenen egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekarua hau aplikatuzetik, baldin eta ondorengo kasu batean aurkitzen badira:

a) *Gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituztela frogatzen duten etxebizitzari ez zaie errekarua ezarriko. Eskatuko diren gutxieneko bizigarritasun baldintzak izango dira, 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketaren babestuei buruzkoaren IV. Eranskinekoak.*

Horretarako, ondasun higiezinaren jabeak, eskumendun teknikariak (arkitektoak) sinaturiko txosten teknikoak aurkeztu beharko du, frogatuz:

- etxebizitzak ez dituela eta gainera, ezin dituela bizigarritasun baldintzak betetzen, adibidez, gutxieneko azalerarik ez duelako, edo

- hilabeteko epean Udalaren esku uzten diren etxebizitzak, eta Udalak, aurrekontu gaitasunaren arabera, bizigarritasun baldintzak betetzeko beharrezkoak diren obrak egiten lagundu ondoren, alokairurako merkatuan jarriko dituenak.

b) Bere helburuen artean ondasun higiezinaren errentan ematearena duten erakunde publiko baten esku jarritakoak eta udalaren, bere erakunde autonomoen eta toki kapitala soilik duen sozietate publiko batenak badira.

c) Errentan emandakoak. Hori ziurtatzeko alokairuaren kontratua edo energi elektriko, ura, gas, ... kontsumoak egiaztatzen dituzten fakturak aurkeztuko dira.

d) Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen etxebizitzak. Kasu hauetan, zahar etxean erroldatu baino lehen zuten ohiko etxebizitzak bakarrik izango du salbuespena.

e) Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak bi urtez egongo dira salbuetsita errekaratu honetaz.

f) Bizigune programara atxikiak egoteagatik hobaria dutenak, edo, atxikiak egonda, alokatu gabe daudenei.

g) Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak. Kasu honen barruan aurkitzen dira, besteak beste:

- ostatatze, ostatu, hostal edo antzeko jarduerari atxikitakoak.

- baserriak, beti ere baserrien titularrak bertan dagoen jarduerarengatik nekazal errenta jasotzen badute.

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda daudenak.

Salbueste hau aplikatzeko, nahitaezkoa izango da jardueraren titularraren higiezinaren katastroko titularraren izatea, edo, hala badagokio, jardueraren titularraren errentan emateko kontratu bat izatea, urtebetekoa edo luzeagoa edota lagapen bidez erabiltzen bada, zinpeko aitortpena aurkeztea.

16. ART. Errekargua aplikatzeko kudeaketa prozedura berezia.

Udalak, ofizioz, ohiko egoiliarrik inskribatuta ageri ez zaien bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titular izanik zerga honen subjektu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du.

Zerrenda horretan sartuta dauden subjektu pasibo guztiei hau jakinaraziko zaie: kasuan kasu onartzen den errekaruari lotuta dauden bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titulartzat sartu dituztela, behin-behinekoz.

Horrela, subjektu pasiboek egoki deritzotena alegatu ahal izango dute, behin betiko erabakitzearen ea ondasun higiezinak zein egoeratan dagoen, egiazko bizilekutzat erabiltzeari edota errekarua ez aplikatzeko baldintzak betetzeari dagokionez.

Ondasunaren hasierako araubidea erabakitzeko behin betiko ebazpenaren jakinarazpena, subjektu pasiboari banan-banan egingo zaie. Eta, egoki baldin bada, zergaren erroldan sartuko dituzte, errekaruak zergapetutako ondasunen baten titular diren subjektutzat.

VI. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza Fiskala 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

ERANSKINA

a) Ondasun higiezinaren gaineko Zerga:

- hiri-ondasun eta landalur-ondasunak: %1,9ko igoera suposatzen du (abuztuko urte-artereko KPI). Foru Aldundiak, balio katastralari %1eko gehikuntza ematen dio eta guk tipoari, abuztuko KPI %1,9an egonik, %0,9 eransten diogu.

- lurzoru industrial edo hirugarren sektorean kokatutako ondasun higiezinak: igoerarik gabe legezko gehiengoan dagoenez.

- 185.000,00 €tan finkatzea etxebizitzaren gehiengo balio katala, subjektu pasiboa familia ugarien titularra izanik Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobariaz gozatu ahal izateko.

- etxebizitza hutsei %50eko gainkargua ezartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Estoy de acuerdo salvo en el recargo del 50% sobre las viviendas vacías.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Podemos estar de acuerdo en la primera parte y estamos de acuerdo con la filosofía de gravar las viviendas vacías, pero hace un año, creo que fue el 11 de octubre, estábamos hablando de algo parecido, con la sana intención y, estando de acuerdo la mayoría, de trabajar en este asunto y hemos llegado a 31 de octubre de 2013 y seguimos exactamente igual. Sabemos que es un tema complejo y difícil de hacer un seguimiento. Hay experiencias negativas, en el sentido de que se ha aprobado y ha habido que parar un año entero porque se han presentado tantas

alegaciones que era imposible llevarlo adelante. Aun estando de acuerdo con el objetivo, lo que se presenta para su aprobación, no está trabajado. No es propio traer a un Pleno temas de esta índole, con una reunión hace cuatro días en comisión de Hacienda, para aprobarlo en un Pleno a los cinco días. Esto requiere un tiempo y un trabajo. Si hoy se aprueba esto, qué hacemos y cómo se contempla en una situación de crisis una situación como la siguiente: yo tengo una vivienda en Beasain y me sale un trabajo en Jerez de la Frontera para tres años. Yo, voy a volver. Tengo un contrato de tres años, pero no sé si voy a estar esos tres años, con lo cual no voy a alquilar mi vivienda. Si me voy a una residencia de ancianos, mi ilusión es la de volver porque seguramente que voy a mejorar, luego tampoco voy a alquilar. Tenemos las herencias que están contempladas, pero hay toda una serie de detalles que no están recogidos ni madurados. No es intención de votar en contra, insisto. Estamos de acuerdo con la filosofía, pero no está trabajado, y cuando se hace de prisa y corriendo, sabemos cuáles son los resultados. No se si es posible dejarlo encima de la mesa, pero hay que cogerlo en serio y con ganas, y trabajarlo de verdad. No dejarlo para otro año y tampoco aprobarlo y que luego sea imposible aplicarlo y haya que retocarlo. Estamos de acuerdo con la filosofía, pero tenemos nuestras serias dudas de que tal y como está se pueda llevarlo a la práctica.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Decir que con la filosofía, sí estamos de acuerdo y de hecho, nuestro partido en algún otro municipio ha llegado a un acuerdo con BILDU para aplicar el 50% de recargo. Lo que pasa es que este último año en los municipios donde ha habido ese recargo, nos debería de hacer ver cuál es la casuística. Todos estamos de acuerdo con la filosofía, pero se me hace llamativo que, por ejemplo en Donostia, se empiece con 20.000 viviendas vacías, con lo que eso supone para la propia Administración, y se haya llegado a aplicar el recargo a 2.500 viviendas. ¿Significa eso que ha habido 20.000 alegaciones?. Eso significa que no sea tan fácil el recargar por la vivienda vacía. Lo mismo ha pasado en Irún, en Tolosa y en otros municipios. Si bien es verdad que se llega a conocer un baremo de lo que pudiera ser vivienda vacía, bien porque no hay alegaciones o por otra causa, al final el fin que persigue todo esto, que es el de llenar esa vivienda, no se consigue. Esa es por lo menos a la conclusión que llegamos, y más teniendo en cuenta que con el empadronamiento, que es gratuito y se puede hacer en un día, puede echar por tierra el fin pretendido. Si entráis en la página Web de Vitoria podréis ver que el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha hecho devolver al Ayuntamiento de Vitoria lo recaudado por ese concepto. No sé si sabemos en qué aguas nos vamos a meter con este tema. No sé si sólo es un tema de trabajarlo. Alfonso comentaba que desde la anterior legislatura el Gobierno Vasco intentó definir lo que es “vivienda vacía”, y no se consiguió. Estamos viendo que Ayuntamientos más potentes que el nuestro, quiero decir en personal para poder abordar esta problemática, como pueden ser Irún o Donostia, no son capaces de dar la vuelta a este tema. No sé si se puede dejar

encima de la mesa, pero nosotros tampoco vemos el aspecto del recargo sobre las viviendas vacías.

En lo que se refiere al IBI, nos gustaría saber a qué se debe el incremento. Nosotros vemos que los ingresos municipales, mediante tasas en el capítulo I van subiendo año tras año. También vemos que se prevé un aumento del fondo foral en un 2%, y por contra teniendo en cuenta lo que nos viene de Madrid, no se puede aplicar aumento en los sueldos, no se pueden efectuar nuevas contrataciones de personal y por acuerdos que ha tomado este pleno los servicios que se prestan disminuyen de precio o se mantienen. En consecuencia, si los ingresos aumentan, si los gastos bajan o se mantienen, pensamos que hay que argumentar la subida porque la crisis sigue y la gente lo está padeciendo. Más que el 0,9%, yo creo que es la filosofía. El Ayuntamiento de Beasain, tiene un 4% de deuda pública, cuando la media de Gipuzkoa es un 6,2%. Nosotros, según udal gida, a día de hoy estamos en un 3,8%, es decir, tenemos un Ayuntamiento saneado. Si es así, no sé que argumentos tenemos para subir lo que sea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Primero para contestar a Alfonso decir que, hemos trabajado sobre ordenanzas que ya están en proceso. Se ha hablado de cómo funcionan esas ordenanzas y las hemos intentado mejorar, porque quienes las aplican saben mejor que nadie la problemática que se presenta día a día. Yo creo que se ha trabajado y se ha intentado mejorar sobre lo que estaba hecho. Lo que está claro es que sin hacer nada, vamos a seguir estando como hasta ahora. Pensamos que con esto se da un paso hacia delante.

Aitor-i esan KPIren igoera justifikatzeko, gure ustetan KPIren igoerak kopuru aldetik ez du izugarritzko igoera suposatuko. Soldatak igotzen saiatuko gara, dudarik ez izan. Eguneroko gastuak igotzen joaten dira. Uste dut bi kontratu direla igoerarik izan ez dutenak. Helburua ondorengoa da: igoera horrekin lortzen dugun dirua benetan behar dutenei iristea alden den modu egokienean, beraien beharrak asetzen saiatzea, Udalak dituen baliabide eta eskumenen bitartez. Nahiz eta oraingo egoera ekonomikoa saneatua izan, ekonomikoki Udalak ez ohiko sarrera egokiak zituenean, etxebizitzaren eraikuntzagatik etab, orduan ere KPIren igoera edo beste igoera batzuk ematen ziren. Orduan ere, gaur egun bezala, egoera guztientzat ez zen hobea izango. Guk uste dugu KPIren igoerak ez duela eragin handirik. Azkenean %1,9 da.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Egoera txarrean daudenei, egoera hobetzea aipatu duzu baina, pentsatu duzue egun dugun hobari ordenantzaren aldaketa egitea?”

Alkate jaunak (BILDU): “Begiratzan ari gara, zeren eta uste dugu “pobre” berriak ere egon daitezkeela. Diru laguntza batzuk ezartzen dira eta gizarte-

ongizatek bideratzen dira, baina aztertzen ari dira beharrak edo behar berriak zeintzuk diren. Hori ez dakit ordenantza bidez egingo den edo beste modu batetara, izan ere zaila da kasuistika guztia ordenantza batetan jasotzea, baina orain aurrekontuekin ari garenez, saiatuko gara aurreikusten.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk proposamen bat egin nahi dugu, baina ez dakit dena osotasunean bozkatu behar den edo ez. Proposamena da, IBlaren %50eko hobaria ezartzea, etxebizitza izan eta alokairuan ematen duenari, Eusko Jaurlaritzak dituen BIZIGUNE, ASAP edo antzeko programen bidez.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk ezezkoa emango diogu proposamen horri, iruditzen zaigulako ez dela zilegi bi etxebizitza dituenari hobaria ematea, kontutan izanda, etxebizitza hutsa edukitzeagatiko errekaruaren helburua ez dela diru-sarrerak izatea.”

EAJk proposatutakoa bozkatu da, hau da, ondasun higiezinari buruzko ordenantzan ondorengo hobaria aurreikustea: *%50eko hobaria ezartzea, etxebizitza izan eta alokairuan ematen duenari, Eusko Jaurlaritzak dituen BIZIGUNE, ASAP edo antzeko programen bidez.*

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Jarraian, ondasun higiezinaren gaineko zergarekiko ondorengo eranskina, bozkatu da:

- *Hiri-ondasun eta landalur-ondasunak: %1,9ko igoera suposatzen du (abuztuko urte-arte KPI). Foru Aldundiak, balio katastralari %1eko gehikuntza ematen dio eta guk tipoari, abuztuko KPI %1,9an egonik, %0,9 erantzen diogu.*

- *Lurzoru industrial edo hirugarren sektorean kokatutako ondasun higiezinak: igoerarik gabe legezko gehiengoan dagoenez.*

- *185.000,00 €tan finkatzea etxebizitzaren gehiengo balio katastrala, subjektu pasiboa familia ugarien titularra izanik Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobariaz gozatu ahal izateko.*

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1, PP eta ARALAR)
Aurkako botoak: 7 (EAJ, H1)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Segidan, *etxebizitza hutsei %50eko gainkargua ezartzea*, bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, eta ARALAR)
Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)
Abstentzioak: 2 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago izan direnez ez da onartu proposamena.

Beraz, ondasun higieinei buruzko ordenantza fiskalean, EAJk proposatutako hobaria aurreikusten da, etxebizitza hutsei buruzko gainkargua onartu ez denez, ordenantzatik, 13., 14., 15. eta 16. artikulak kendu egiten dira eta eranskina eguneratuko da onartutako hiru xehetasunen arabera.

Hori horrela izanik, ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Jarraian transkribatzen den, ondasun higieinei buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskalari (eranskina barne) hasierako onespena ematea.

Bigarren. Hogeita hamar laneguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarian iragarkiak argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten onespena behin betikoa bihurtuko da.

Horrekin guztiarekin, *ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA*, honela geratu da:

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ART.- Udal honek, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzko Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak ematen dion baimenaz baliatuta, ondasun higiezin hiritar eta landatarren gainera zerga arautu eta eskatzen du.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA

2. ART.- Ondasun higiezin gainera Zerga izaera erreala duen zuzeneko tributua da, eta Beasaingo udalerrian kokatuta dauden ondasun higiezin balioa zergapetzen du.

3. ART.- 1. Ondasun higiezin hiritar eta landatarren gainera eskubide hauen titularitateak eratzten du zergaren egitate ezargarria:

- a) Ondasun higiezin gainera edo haiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gainera dagoen administrazio emakida.
- b) Azalera eskubide erreala.
- c) Gozamen eskubide erreala.
- d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan adierazitako egitate ezargarrietako bat bertan ezarritako hurrenkeran gauzatzeak berarekin ekarriko du ondasun higiezina ez gelditzea apartatu horretan jasotzen diren beste modalitateei lotuta.

3. Ondasun higiezin bat udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta badago, zerga honen ondorioetarako ulertuko da horietako bakoitzekoa izango dela dagokion udalerrian hartzen duen azaleraren arabera.

4. ART. – Ez daude zerga honi lotuta errepideak, bideak, kaleak, gainerako lehorreko bidea eta gunee libreak, betiere herri jabarikoak badira eta aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

III. SUBJETU PASIBOA

5. ART.- 1. Pertsona natural eta juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3 apartatuan aipatutako entitateak dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, beti ere zerga honen zerga- gaia kasu bakoitzean eratzten duen eskubidearen titularrak badira.

Ondasun higiezin berean emakida- hartzaile bat baino gehiago ageri denean, kanon handiena ondaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa halaxe aplikatuko da, eta horrek ez du eragotziko subjektu pasiboak jasandako zerga kuota zuzenbide komunaren arauen arabera jasanarazi ahal izatea.

Zergaren subjektu pasibo izan gabe ondasun demanialak edo ondarezkoak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei jasanaraziko die Beasaingo udalak zergaren kuota likido osoa.

Era berean, zergadunaren ordezkioak gainerako emakidahartzaileen gainean jasanarazi ahal izango du haiei dagokien kuota likidoaren zatia, eta zati hori bakoitzak ordaindu behar dituen kanonen arabera izango da.

IV. OINARRI ZERGAGARRIA

ART. 6º- 1. Zerga honen oinarri zergagarria, ondasun higiezinaren balioa izango da.

2. Oinarri ezargarria zehazteko, ondasun higiezinaren balioa, beraien katastroko balioa, erreferentzia gisa merkatuan duten balioa hartuz finkatuko dena, berari inoiz gaitzeko.

V. KUOTA, SORTZAPENA ETA EZARRALDIA

ART. 7º- 1. Zerga honen kuota osoa oinarri ezargarriari Ordenantza honetako eranskinean azaltzen den karga tasa aplikatzen ateratzen den emaitza izango da.

2. Kuota likidoa kuota osoaren ordenantza honetan onartzen diren hobariak gutxituz lortuko da.

ART. 8º- Hobariak:

a) Kuota osoaren gaineko hobaria, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute, honako ondasun higiezinaren kasuan: Obra berrikoak nahiz haiekin parekagarri diren eraberriketakoak, urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede direnean eta haien ibilgetuaren artean ageri ez direnean.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta beti ere denbora horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gaitzeko.

b) Kuota osoaren gaineko hobaria, subjektu pasiboak familia ugariaren titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean.

Emakidaren balio-denbora: urtea.

Eskaria aurkezteko epea: urtarrilaren 1etik 31ra.

Emakidarako baldintzak:

- Ordenantza honen eranskinean xedatutako balio katastralaren kopurua gaitzeko ez duen ohiko etxebizitza (biztanleen udal-eroldako datuen arabera).

- Titularrak edota onuradunak ohiko etxebizitza denez kanpo beste ondasun higiezinaren jabe ez izatea (ez jabetza osoan ez eta partzialean ere), garaje bat, trasteleku bat eta dagokion kasuan, bere jarduera profesionalaren lokala izan ezik.

Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskari-orria beteta.
- Foru Aldundiko Gizartekintza Zerbitzuak igorritako familia ugariaren titulua indarrean.
- Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo, beste ondasun higiezinaren batzuen jabea ez izatearen zinpeko aitortpena.
- Eskatzailea ordainagiriaren titularra ez denean: etxearen jabearen zinpeko aitortpena, ordain agiria eskatzaileak ordaindu duela aitortuz.

Zergaren ordainagirian etxebizitzaz gain garaje, trasteleku etab. jasotzen badira, hobaria etxebizitzari dagokion kuotaren gainean aplikatuko da soilik.

Hobari hau bateraezina izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aplikagarri den beste edozein hobarirekin.

c) Kuota osoaren gaineko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta, dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren. Hobari hau, gehienez, 5 urtetan aplikatuko da.

Kasu bakoitzean, aplikatuko den hobariaren ehunekoa, Ordenantza honen eranskinean zehaztuko dena izango da.

d) kuotaren osoaren gaineko hobaria, etxebizitza izan eta alokairuan ematen duenari, Eusko Jaurlaritzak dituen BIZIGUNE, ASAP edo antzeko programen bidez.

Kasu bakoitzean, aplikatuko den hobariaren ehunekoa, Ordenantza honen eranskinean zehaztuko dena izango da.

ART.9º- 1. Hobariak subjektu pasiboak eskatu behar ditu.

ART. 10º- Salbuespenak:

12/1989 Foru Arauak aurreikusitakoak, hau da:

1. Hurrengo ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Estatuarenak eta toki entitateenak, baldin eta zuzenean herritarren segurtasunerako eta hezkuntzaren nahiz espetxeen zerbitzurako jarriak badira, eta Estatuak defentsarako dauzkanak.

b) Udalerrien jabetzako auzo ondasunak eta esku komuneko herri basoak. Era berean, salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Udalerrien, udal organismo autonomoen edo udalherri horiek erabat partzipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako udalerrien lurraldean kokaturik badaude.

2. Mankomunitateen, beren organismo autonomoen edo mankomunitate horiek erabat partzipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako mankomunitateek jarduten duten lurralde eremuan kokaturik badaude.

c) Gurutze Gorriarenak eta erregelamenduz zehaztuko diren gisa horretako beste entitateenak.

2. Era berean, eta eskaera aurrez aurkezturik, ondoko haueksalbuetsiko dira:

a) Erregelamenduz zehaztuko diren hazkunde moteleko espeziez landatutako mendien azalera, bere aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoa denean, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezie horri berez dagokiona bada.

Orobat, baso berritzen edo birlandatzen diren mendien azalera, baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuei edo plan teknikoei jarraiki egiten bada. Paragrafo honetan aurreikusten den salbuespenak hamabost urtez iraungo du, eskaera aurkeztu ondorengo zergalditik aurrera kontatuta.

b) Eliza Katolikoarenak, Estatu Espainiarrak eta Vatikanoko hiriak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatutako Akordioan jasotakoaren arabera, eta legez onartuta dauden elkarte konfesional ez-katolikoarenak, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren indarrez izenpetutako lankidetzakordioetan ezartzen den eran.

c) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen indarrez salbuespen hau aplikagarri duten ondasun higiezinak, eta elkarrekotasun baldintza egonez gero, baita atzerriko gobernuenak ere, beren ordezkaritza diplomatiko edo kotsularrek nahiz beren organismo ofizialek erabiltzekoak direnean.

d) Trenbideek hartutako lurrak eta lur horien gainean dauden eraikinak, baldin eta horiek geltoki edo biltegi gisa nahiz línea horiek ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Beraz, ostalaritza establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritza eta aisialdi guneak, enplegatuentzako etxebizitzak, zuzendaritzako bulegoak eta lantegiak ez dira salbuetsita egongo.

e) Monumentu izaera duten edo monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko a) letran jasotako moduan. Salbuespen hau kalifikatuta nahiz inbentariatuta dauden kultur ondasunei aplikatuko zaie, beti ere uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko b) letran jasotako moduan. Salbuespen Indarrean dagoen testua horrek bakarrik hartuko ditu babes bereziko edo babes ertaineko erregimenen barruan sartutako ondasun higiezinak, kalifikatuak izan edo inbentariatuak izan, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

Era berean, ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 44. artikulua aipatutako arkeologia zonetan kokaturik daudenean –zona horiek Kultur Ondasun gisa izendatuta egon behar dute eta kalifikatuak nahiz inbentariatuak izan-, baldin eta eskuhartze arkeologikoren bat bertan egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako Sailak erabakitzen badu aurkitutako aztarnak bertan mantendu behar direla ezer kendu gabe eta tokiz aldatu gabe.

f) Onarri ezargarria 600 eurotik gorakoa ez duten ondasunak.

g) Unibertsitate Publikoak bere helburuak betetzeko atxikita dauzkan ondasunak, eta hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuenak, erabat edo zati batean itundutako ikastetxeak diren bitartean.

Apartatu honetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, interesatuek eskaera aurkeztu behar diote alde zuzenetik udal eskudunari.

Ematen diren salbuespenek eskaera egin eta ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

ART.11º- 1. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

2. Zergaldia bat dator urte naturalarekin.

VI. KUDEAKETA

ART. 12º- 1.Zerga honen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren esku utz daitezke, Udal Batzarrak erabakitako moduan (Udalak erabakitako eduki eta eremuarekin alegia). Horretarako bidezko hitzarmena izenpetuko litzateke.

2. Udal erabakia G.A.Oean argitaratuko da.

VI. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza Fiskala 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

| <u>ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ZEHAZTEKO TIPOAK</u> | | |
|---|---------|-------|
| | | Tipoa |
| Hiri-Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa | 0,2183% | |
| Landalur-Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa | 0,7637% | |
| Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatutako Hiri-Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa. Kokatuta dauden ondasun higiezin erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez den eraikuntzei ezik. | 0,6% | |

HOBARIAK Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera:

a) Urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede diren higiezinak: %50eko hobaria.

b) Familia ugarien titularrak: %60ko hobaria.
Gehiengo balio katastrala: 185.000,00 euro.

c) Babes ofizialeko etxebizitza berrietarako: %50eko hobaria.

d) BIZIGUNE, ASAP edo antzeko programen bidez alokairuan emandako etxebizitzak: %50eko hobaria.

4.- ORDENANTZA FISKALEN ERANSKINAK. 2014. ekitaldi ekonomikorako tarifak onartzea.

Alkatea jaunak gai honekiko Hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga:

%1,9ko igoera (abuztuko urtearteko KPIa) epigrafe guztientzat.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga:

Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarrari %1,9ko igoera.

Eraikuntza, instalazioa eta obren gaineko Zerga:

%1,9ko igoera tipo orokorrean, %5eko legezko gehiengoa iritsiz. Igoerarik gabe mantentzea tipo murriztua.

Tipo murriztua aplikatzeko azkeneko urtearen aldaketa 1969. urtera.

Lursailen balio gehikuntzaren gaineko Zerga:

Karga motari %1,9ko igoera.

Zerga kuota osoari %80ko hobaria ezartzea, lurren eskualdaketetan eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdaketa edo eraketatan, beti ere kostu gabeko eraketa edo eskualdaketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta.

TASAK:

- Zaborbilketa:

Etxebizitzak:

Berziklatzen dutenek: 80 €

Berziklatzen ez dutenek: 100 €

Abeltzain esplotazioei (ikuiluak) 98 euroko tasa ezartzea.

Gainerakoak: %1,9ko igoera.

- Gainerako tasak eta tarifak.”

Jarraian, ordea, Alkateak proposamen horrekiko aldaketa dagoela dio, zineko tasetan eta zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuan. Gainera, TAO zerbitzuaren tarifak ere onartzea proposatu du. Beraz, proposamenaren aldaketa honetan datza:

“Nahiz eta proposamena gainerako tasa eta tarifetarako KPlaren igoera zehaztu, ondorengoan aldatzen da:

1.- **ZINE**aren prezioen kasuan, gaur egungo prezioa mantentzea eta, astegunetan, astelehenetik ostegunerako tarifen kasuan, jeistea proposatzen da eta 3Den emango diren pelikulen kasurako prezioak ezartzea, ondoren adierazten den bezala geldituko delarik:

- Zine-sarrera astegunetan, astelehenetik ostegunera 4,50 €tik 4 €ra jeisten da eta 3D pelikuletarako 5 €tan finkatzen da.

- Zine-sarrera ostiral, larunbat, igande eta jai egunetan:

- Helduak: 5 €tan mantentzen da eta 6 €tan ezartzen da 3D pelikuletarako.
- Haurrak: 3,5 €tan mantentzen da eta 4 €tan ezartzen da 3D pelikuletarako.
- 5 emanaldiko abonamendua 15 €tan mantentzen da.

2.- **ZABORBILKETA** zerbitzuaren tasari dagokionena, proposamena aldatzen da %8ko gutxieneko eta %34,66 gehienezko igoera aplikatuz frakzio organikoa bereizten ez dutenentzat, eta gero adieraziko den bezala geratuko da Ordenantza fiskalaren eranskina.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Aqui nos pasa lo mismo que con el 50%. Podemos estar de acuerdo con el primar que se recicle, pero no estamos de acuerdo con penalizar. Esto es una cuestión cívica. Hay que informar al ciudadano y es cierto que unos somos más sensibles que otros, pero sabemos cuantos lo están haciendo, aunque no sabemos en qué medida. LLevamos cuatro o cinco años con el contenedor marrón y mi pregunta es por qué el Ayuntamiento no se ha dirigido a estos ciudadanos que no han recogido el cesto, recordándoles, animándoles e incluso enseñándoles, como se hizo en algún momento?. No se ha vuelto a hacer nada de eso. Si se ha vuelto a hacer, disculpas porque no lo conozco. Quizás sea porque estoy más fuera que dentro. En todo caso sería bueno insistir porque podemos gravar a quien no recicla y puede ocurrir que por 20 € coja el cesto y vaya todo al contenedor marrón, ya que si antes no tenía conciencia, tampoco la va a tener ahora. Pero como estamos en la línea de reciclar (tampoco tenemos muy claro este incremento, dónde puede terminar y para qué), de intentar no obligar, pero si sugerir y recomendar que la gente recicle más, vamos a apoyar esta propuesta.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “En primer lugar agradecer a BILDU, que apueste de forma decidida por la recogida selectiva mediante el quinto contenedor. Esta decisión la tomó el Ayuntamiento mediante una moción. Después de dos años sin subida, se plantea un 8% de subida, y creemos que es razonable. Habrá que trabajar el modo de cobro, es decir, si primero se cobra y luego se devuelve al que utilice el quinto contenedor y lo que no cabe duda es que va a ser importante la campaña de sensibilización, diciendo qué es la utilización del quinto contenedor, en cuanto se concreta la utilización de ese quinto contenedor, esto es, si hay que echar una bolsa a la semana, dos, etc. Yo creo que nos queda trabajo por hacer. Agradecer de nuevo a BILDU. A nosotros también nos preocupa y así se lo hecho saber en las reuniones, para que hay que utilizar ese dinero, pero una apuesta decidida como está tiene esos riesgos. Es llamativo que por ejemplo, en Lazkao, sólo la recogida tiene un 40% de subida respecto al sistema anterior, y aunque a nosotros en Sasieta se nos dijera el año pasado que cada municipio se iba a hacer cargo de los costos, hace un año casi que no tenemos ninguna reunión en Sasieta y tenemos el temor de qué va a pasar con ese dinero. Lo que antes costaba en Lazkao 100.000 €, ahora cuesta 240.000. En Ordizia se ha triplicado el gasto, en Zaldibia se ha cuadruplicado. Creemos que va a haber otra serie de necesidades y no quisiéramos ser el municipio que más aporte y más pague. Sería bueno que cuando necesitemos nosotros para dar otros pasos se utilice ese dinero para eso. De todas formas, nosotros apoyaremos la postura de BILDU.

Alkate jaunak (BILDU): “Las campañas de sensibilización a todos son parecen fundamentales. A finales de este año y principios de 2014, se hará la campaña de sensibilización en viviendas, y en el primer y segundo semestre de 2014, se hará en los comercios. Se acudirá a los comercios y se intentará concienciarles para que efectúen esa recogida. Decir que como grupo nos sentimos satisfechos de que apoyéis la propuesta, porque nos parece importante que todos vayamos en la misma dirección e intentemos mejorar la recogida selectiva. Nosotros vamos a apoyar el quinto contenedor, pero lo que queremos es llegar a los porcentajes (60%, 70%, 80%), que están llegando otros municipios y como ya dijimos en algún otro Pleno, deberíamos de dejar de hacer política con este tema y mostrar a la ciudadanía que no con todos los temas estamos peleando unos contra otros.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, ordenantza fiskalen eranskinak eratzen dituzten, 2014. ekitaldi ekonomikorako tarifak bozkatu dira eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, erabaki hau hartu da:

Lehenik. 2014. ekitaldi ekonomikorako jarraian adieraziko diren tarifei hasierako onespena ematea.

Bigarren. Hogeita hamar eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarian iragarkiak argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten onespena behin betikoa bihurtuko da.

ZERGAK:

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga:

%1,9ko igoera (abuztuko urtearteko KPIa) epigrafe guztientzat.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga:

Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarrari %1,9ko igoera.

Eraikuntza, instalazioa eta obren gaineko Zerga:

%1,9ko igoera tipo orokorrean, %5eko legezko gehiengoa iritsiz. Igoerarik gabe mantentzea tipo murriztua.

Tipo murriztua aplikatzeko azkeneko urtearen aldaketa 1969. urtera.

Lursailen balio gehikuntzaren gaineko Zerga:

Karga motari %1,9ko igoera.

Zerga kuota osoari %80ko hobaria ezartzea, lurren eskualdaketetan eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdaketa edo eraketatan, beti ere kostu gabeko eraketa edo eskualdaketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta.

TASAK:

I.- ZINEA:

- Zine-sarrera astegunetan, astelehenetik ostegunera, 4 € eta 3D pelikuletarako 5 €.

- Zine-sarrera ostiral, larunbat, igande eta jai egunetan:

- Helduak: 5 € eta 6 € 3D pelikuletarako.

- Haurrak: 3,5 € eta 4 € 3D pelikuletarako.
- 5 emanaldiko abonamendua 15 €.

II.- ZABORRAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA:

1.- ETXEBIZITZETAKO ZABORRAK:

Etxebizitzak:

- a) Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 80 €
- b) Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 100 €

Garaje kolektiboa:

- 50 plaza gehienez: 290,00 €
- 50 plazatik 100era: 435,00 €
- 100etik gora: 644,00 €

Garaje bakarrekota eta lokal itxia: 48 €

2.- KOMERTZIOETAKO ZABORRA:

2.1.- Hondakin organikoa sortzen duten “sortzailea bereziak”:

- a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bokadillo eta plater konbinatuak):
 - Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 390,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 480,00 €
- b) Jatetxeak:
 - Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 452,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 563,00€
- c) Supermerkatuak:
 - Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 326,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 407,00 €
- d) Supermerkatu handiak:
 - Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 1.036,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 1.292,00 €
- d) Fruitategiak:
 - Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 326,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 407,00€

- e) Hondakin organikoa sortzen duten elikadura arloko bestelako dendak:
- Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 326,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 407,00€
- f) Harategiak **(1)**:
- Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 207,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 258,00€
- g) Arraindegiak **(1)**:
- Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 207,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 258,00 €
- h) Elkarre gastronomikoak:
- Indarrean dagoen Ordenantzaren arabera frakzio organikoa bereizten dutenak: 390,00 €
 - Frakzio organikoa bereizten ez dutenak: 480,00€

2.-2.- Sukalde zerbitzua ez duten tabernak: 326,00 €

2.3.- Hondakin organikoak sortzen ez dituzten likadura arloko dendak: 209,00 €

2.4.- Bestelako dendak, biltegiak: 209,00 €

2.5.- Zerbitzuak : 207 €

2.6.- Biltegi handiak eta antzekoak: 1.036,00 €

(1) 1069/2009 europar Erregelamenduko 10.f artikuluko 3. Kategorian sartzen diren giza kontsumora zuzendu behar ez diren izaera organikoa duten arraindegi eta harategietako subproduktuak eta animalia jatorrizko produktuak dituzten bestelako produktu deribatuak ("SANDACH" deritzanak), sortzaileek beraiek baimendutako kudeatzaileei entregatuko dizkie.

3.- INDUSTRIETAKO ZABORRAK:

Garaje kolektiboa: 326,00 €

Tailerrak (40 langilera arte): 407,00 €

Fabrikak (40 langiletik gora): 568,00 €

Abeltzain esplotazioei (ikuiluak) 98 (cuadra): 98 €

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK aldaketarik gabe mantentzen dira.

III.- TAO

| IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUA BIDE PUBLIKOAN | EUROAK – EUROS |
|---|----------------|
| Lehenengo 15 minutuak sektore guztietan | 0,00 |
| SEKTORE MARROIA | |
| 30 minutu | 0,35 |
| Ordu bat | 0,70 |
| Salaketa baliogabetzea | 8,00 |
| SEKTORE URDINA | |
| 30 minutu | 0,35 |
| Ordu bat | 0,70 |
| Ordu eta erdi | 1,20 |
| Bi ordu | 1,70 |
| Bi ordu eta erdi | 2,40 |
| Hiru ordu | 3,10 |
| Hiru ordu eta erdi | 4,05 |
| Lau ordu | 5,00 |
| Salaketa baliogabetzea | 8,00 |
| SEKTORE BERDEA | |
| 30 minutu | 0,25 |
| Ordu bat | 0,50 |
| Ordu eta erdi | 0,75 |
| Bi ordu | 1,00 |
| Bi ordu eta erdi | 1,25 |

| | |
|--------------------------------|-------|
| Hiru ordu | 1,50 |
| Hiru ordu eta erdi | 1,75 |
| 4 ordu | 2,00 |
| Salaketa baliogabetzea | 8,00 |
| EGOLIARRENTZAKO APARKALEKUA | |
| Egoiliarren txartela, € / urte | 40,00 |
| PARKIMETROAK | |
| Karga-txartela | 11,00 |
| Txartelaren carga | 30,00 |

IV.- GAINERAKO TASAK ETA TARIFAK: % 1,9 igoera.

URAREN ORDENANTZA ETA TARIFAK

Alkate jaunak, proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2004ko azaroaren 4an egindako bileran Udalbatzak Ur Zerbitzuak, S.A.ren bitartez eman beharreko abonatuaren gestioa eta ur-horniketa eta saneamenduaren sareen mantenimentuari buruzko 1999ko 1999ko azaroaren 25eko Udalbatzaren erabakia bertan behera uzteko akordio hartu zuen.

2.- Aipatutako hitzarmenaren seigarren klausulak ondorengo xedatzen du: “Zerbitzuaren tasei eta prezioei eta udalerriko abonatuari aplikatu dakizkiekeen ordenantzei dagokienez, Kontsortzioko udalerriri bakoitzak bereak onartu beharko ditu. Nolanahi ere, hitzarmen honen bidez GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN Batzar Nagusiaren esku uzten da tasa horiek urtero eguneratzeko ahalmena, tarifa-egitura aldatu gabe, apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauaren arabera”.

Hitzarmenaren seigarren klausulan xedatutakoaren arabera, Hazienda Batzordeak Udalbatzari egiten dio ondorengo

PROPOSAMENA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Uren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzaileria aldatzea, Beasaingo udalean aplikatzeari dagokionean, 2014-ko Urtarrilak 1-etik aurrera hau eguneratu egingo delarik ondorengoaren arabera:

Kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak izango direla.

Beharrezko xedeetarako, etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle kopurua, Udalak emandako azken erroldan azaltzen direnak izango dira.

Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago)".

Alkate jaunak (BILDU): "Ekonomikoki gai hau ez da hain esanguratsua, dirutaz hitz egin ezker oso diru gutxiaz hitz egiten ari ginatekeelako. Agian 3 € hilabetero edo horrelako zerbait, baina pentsatzen da justuagoa dela, pertsona eta litroko izatea neurketa hau."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): "Yo no firmé el acta en la comisión, pero el gobierno municipal me informa de que ha habido una reunión en el consorcio y que todos los partidos políticos estaban de acuerdo. Pregunto en el grupo y me lo confirma. Por lo tanto, de acuerdo."

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "Nosotros pensamos que con el tema del agua se están tratando dos temas diferentes, y también nos hemos intentado informar. Parece que con el primer punto se pretende marcar un coeficiente para que se haga un uso racional del agua y nos parece bien que se bareme mediante los habitantes que viven en la casa, aunque es verdad que económicamente no supone un incremento a reseñar. Sin embargo, no estamos de acuerdo con el segundo argumento, porque se pretende gravar en el tramo más alto a personas que no hacen ningún gasto. Las tasas lo que tienen que hacer es cubrir el gasto del servicio que se da y no vemos lógico que por la extensa casuística que puede haber con las viviendas vacías, se empiece a cobrar el tramo más alto cuando no hay ningún consumo. Lo que proponemos es que el segundo punto se saque de la propuesta y sólo se vote el primer punto."

Alkatea jaunak proposatu du lehengo puntuari buruzko bozketa egitea eta jarraian bigarren puntuari buruzko bozketa.

Horren ondorioz ondorengo bozkatu da:

“Kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak izango direla.

Beharrezko xedeetarako, etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle kopurua, Udalak emandako azken erroldan azaltzen direnak izango dira.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Jarraian ondorengo bozkatu da:

“Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago)”.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, ARALAR).

Aurkako botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoak aurkakoak baino gutxiagoak direnez, ez da onartu proposamena.

Beraz, ondorengo erabakia hartu da:

“Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Uren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailerik aldatzea, Beasaingo udalean aplikatzeari dagokionean, 2014-ko Urtarrilak 1-etik aurrera hau eguneratu egingo delarik ondorengoaren arabera:

Kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak izango direla.

Beharrezko xedeetarako, etxebizitza bakoitzean bizi den biztanle kopurua, Udalak emandako azken erroldan azaltzen direnak izango dira.”

5.- AUTO-TAXI ZERBITZUA. 2014. ekitaldi ekonomikorako tarifak onartzea.

Alkatea jaunak, ondorengo Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2014 urterako tarifen onespena eskatu du.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.

Bigarren.- Agitaxek Goiekiren bidez proposatutako 2014rako tarifen onspena, indarrean daudenekiko % 1,9ko igoerarekin.

| | Abiasaria | Ibilitako kilometroa | Itzarote ordua |
|-------------------|------------------|-----------------------------|-----------------------|
| Tarifa 1* | 3,4588 € | 1,0828 € | 20,6819 € |
| Tarifa 2** | 3,4588 € | 1,7269 € | 32,5052 € |

* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan

Hirugarren.- Goiekiri akordio honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako interbentziorik izan.

Bozketa eginda, ondorengo erabakia hartu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1 eta ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP).

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

6.- BEASAINGO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO UDAL ORDENANTZA. Aldaketaren hasierako onspena.

Alkatea jaunak esan du gai hau gai-zerrendatik erretiratu egin dela, lege arazoak direla medio.

Une honetan Aitor Aldasoro jaunak, batzarraldia utzi du.

7.- MOZIOAK:

- Ambulatorio ospitaleetan ematen diren botikagatik koordainketa berria arbuizatzeari buruz, Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak alde zuzenetik hitza emanda, Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE), ondorengo mozioa irakurri du:

“Desde la puesta en marcha, en el año 2012, del Real Decreto-ley 16/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes para garantizar la sostenibilidad del Sistema Nacional de Salud y mejorar la calidad y seguridad de sus prestaciones, muchos han sido los pasos dados por la Administración en contra de los derechos de los pacientes, algunos singularmente graves.

En este mismo sentido de recortes de derechos, recientemente se publicaba en el Boletín Oficial del Estado, el pasado 19 de Septiembre, la Resolución de 10 de septiembre de 2013, de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por la que se procede a modificar las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud mediante la asignación de aportación del usuario, en desarrollo del Real Decreto-ley 28/2012, de 30 de noviembre, de medidas de consolidación y garantía del sistema de la Seguridad Social. Con esta publicación, sin notificación o información previa del Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad, el Gobierno evitaba su publicidad tratando de soslayar la reacción adversa de los profesionales de la sanidad, de los pacientes afectados y sus familias, presentándolo así como un hecho consumado.

Sin embargo, la injusticia y crueldad con que se toman estas medidas se agrava como consecuencia de ser pacientes crónicos quienes han de pagar este tipo de medicación, lo que sin duda, se une a la ya difícil situación personal derivada de su dolencia crónica o grave, cáncer, hepatitis...

Ante esta circunstancia, muchas han sido las asociaciones y colectivos de pacientes, profesionales sanitarios y consumidores los que han elevado su protesta a la Administración. De igual manera lo han hecho algunas Comunidades Autónomas, como Castilla y León, Andalucía, Asturias o País Vasco, que han mostrado su incomprensión ante una medida tan ineficaz como injusta.

El Parlamento Vasco ya se ha pronunciado en ocasiones precedentes, en contra de la aplicación de medidas de repagos por la prestación de servicios sanitarios. Así mismo, en la pasada legislatura el Gobierno del Lehendakari Patxi ópez puso en marcha todos los mecanismos a su alcance para impedir la aplicación de los recortes impuesto por el Gobierno de Rajoy.

Por todo lo expuesto, el GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA formula la siguiente Moción para su debate en Pleno:

1. El Ayuntamiento rechaza todas las medidas de recortes sanitarios y repagas realizadas en fechas precedentes y rechaza el nuevo copago para fármacos que se dispensan en los hospitales de mal"era ambulatoria e insta al Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad a derogar de forma inmediata la Resolución de 10 de septiembre de 2013, de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por la que se procede a modificar las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud mediante la asignación de aportación del usuario.

2. Este Ayuntamiento rechaza, en cualquier caso, la aplicación de la citada Resolución en el territorio de nuestra Comunidad Autónoma, e insta al Gobierno Vasco a realizar las gestiones oportunas para que los ciudadanos afectados no tengan que realizar ningún tipo de pago por el suministro de fármacos en los hospitales de la Comunidad Autónoma.

3. Este acuerdo será trasladado a la Presidencia del Gobierno de España, al Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad, a las Cortes Generales así como al Gobierno Vasco, a las Juntas Generales de Gipuzkoa y a EUDEL.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honelako iritziak azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “¿Qué es el copago farmacéutico hospitalario?. Es la aportación que tienen que realizar los pacientes con patologías crónicas que requieren tratamientos prolongados o continuados con medicamentos que tienen que ser retirados con receta médica de las farmacias del hospital y cuyo tratamiento se realiza de forma ambulatoria, es decir, fuera del hospital (nunca los fármacos que se dan cuando uno está ingresado).

Están exentos de este pago:

- Los pensionistas con rentas bajas.
- Los perceptores de rentas de integración social.
- Los parados de larga duración.

La aportación es de un 10% del precio de medicamento con un tope máximo de 4,20€ por envase y mes.

Afecta a 42 fármacos (no a 157 como se dice, 157 el total de presentaciones de los 42 fármacos).
No afecta para nada a los retrovirales que se siguen administrando de forma gratuita en las farmacias hospitalarias.

Recordarles que algunos de los fármacos que se dan ahora en las farmacias hospitalarias hasta hace un tiempo se compraban en farmacias normales y estaban pagando hasta el 40% de su coste.

Otros datos:

El gobierno socialista sólo en sanidad dejó una deuda de 16.000 millones de €. En Andalucía que no van a aplicar este copago, pero que sin embargo se niegan a pagar a los proveedores de estos fármacos (a farmaindustria a la que deben casi 1.000 millones de €). Así es muy fácil dar medicamentos gratis.

En caso de que se retirase la resolución supondría tener que aplicar el art. 94 bis de la Ley de Garantías y estos fármacos pasarían a someterse al régimen de pago de los fármacos normales lo que supondría pagar entre un 10% a un 60% del coste como sucede con los fármacos normales.

Ejemplo: un fármaco para el cáncer de mama que cuesta 30.000 €, costaría desde 3.000 € a 20.000 €.”

Mª Mar Celaya andrea, batzarralditik atera da.

Beste guztiek ez dute ezer aipatu mozioarekiko.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR).

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin mozioa onartu egin da.

Mª Mar Celaya Andrea berriro sartu da batzarraldira.

- BILDU-ARALARek aurkeztutako mozioa, epaiketa politikoei buruz.

Alkate jaunak, mozioaren berri eman du:

“35/02 eta 26/11 HERRIKO TABERNAK ETA SEGI GAZTE ERAKUNDEARI BURUZKO SUMARIOEI BURUZKO MOZIOA.

Urriaren 17 eta 14an Audientzi Nazionalak Herriko Tabernak izenez ezaguna den epaiketari eman zion hasiera (35/02 sumarioa) baita 26/11 Segi gazte erakundearen aurkako epaiketari ere. Sumario hau duela hamar bat urte hasi zen Garzón epailearen ekimenez. Prozesu erraldoia da eta 80 pertsona daude auziperatuta talde armatuan parte hartzea eta harekin lankidetzaz aritzea egotzita, eta Herriko Tabernen kudeaketarekin eta ETaren finantzabideekin zerikusia duten delitu ekonomiko eta sozietateetakoak leporatuta. Beasaingo kasuan Jon Gorrotxategi herritarra eta Arrano Kultur Elkartearen auzian sartuta daude. Jonen kasuan hamar urteko kartzela zigorra eskatzen zaio eta Arrano kultur elkartearen komisoa, hau da desjabetzea.

Prozesu honek beste batzuk ekartzen dizkigu gogora, besteak beste 18/98 sumarioa (AEK) eta Euskaldunon Egunkaria sumarioa. Prozesu horiek ez zuten inoiz hasi behar, hasiera hasieratik oinarri juridiko-penalik gabeak izan direlako. Prozesu hauen sorburu eta garapenean nagusi izan ziren asmo eta inspirazio politikoak. Prozesu hauek justiziaz kanpoko irizpideek markatu zituzten, besteak beste, nahita gairatu zen erakunde terrorista barruan egoteak eta harekin lankidetzan jarduteak duen esanahia, horretarako probarik egon gabe. Auziperatuei ETako kide izatea edo harekin lankidetzan aritzea egotzi zitzaientzen, hori esateko argudio bakartzat lege barruan garatzen diren jarduerak kulturalak, prentsa lanak edo politikoak erabilia, eta dena ETaren mende zegoela ezarri. Hori dena egin zen testuinguru politikoan PPren Gobernuak PSOEn lankidetzari esker Alderdien legea egin zuen, ondorengo ilegalizazio prozesuak ekarri zituen.

Urte batzuk geroago, lehenagoko kontua errepikatu da. Gainera, epaiketari bestelako testuinguru batean garatuko da. Oraingo zailtasun eta konplexutasunekin ere, bake eta normalizazio prozesua Euskadiko erakunde politiko eta sozialek bereganatuta duten garaian, hain zuzen.

Horiek arrazoi guztiek erakusten dute prozesu judizial horren hasierak atzeraldia suposatzen duela, elementu asaldatzailea da euskal gizartea normalizazio politikorako bidea egiten ari den une honetan. Eta, hori dena, inputazioek oinarririk ez dutela aparte utzirik, hainbat abokatuk gaiaren inguruan izenpetu duten manifestuan argi geratzen denez.

Gure aburuz 35/02 eta 26/11 sumarioek ez dute gutxieneko oinarri juridikorik eta ez zen sekula hasi behar edo, bere kasuan, kausa artxibatu behar zen. Hala eginik, agintea berrezarriko zen eta zigor justiziaren prestigioa berreskuratu, bake prozesuari eta Euskadin normalizazio politikoari lagunduz.

Esandakoagatik guztiagatik, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten da honako

MOZIOA

Beasaingo udalak, erabateko desadostasuna adierazten du epaiketa politiko hauen aurrean, eta inoiz hasi behar ez zen prozesua berehala ixtea eta auziperatu guztien absolutzioa ebazteko erabaki juridikoa hartzea exijitzen du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Aquí no hay juicios políticos. Aquí hay personas imputadas por diferentes tipos delictivos recogidos en el Código Penal. Otra cosa es que a algunos les interese esquivar la acción de la política reuniendo argumentos más o menos peregrinos en un afán por diluir responsabilidades y hacer como que aquí no ha pasado nada. Pero todos sabemos que sí ha pasado, por lo que la solución no pasa por mirar hacia otro lado, ni buscar excusas.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Hace unos días ha habido una sentencia que a unos ha agradado y a otros no. Las sentencias son así, hay veces que te gustan y hay veces que no te gustan. En el tema que estamos hablando mi opinión personal, podría ser diferente a lo que puede haber por ahí, pero jamás, nunca cuestionamos la labor de la justicia y desde luego, en este caso no hay juicios políticos. Podemos estar de acuerdo o no, esa es otra cuestión, pero la justicia merece un respeto y en democracia nosotros lo somos. Siempre hemos acatado las sentencias, buenas, malas, a gusto o a disgusto, con lo cual, no es que no estemos de acuerdo, ni a favor. No vamos a entrar en este debate.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (BILDU, EAJ, H1 eta ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

PSE-EE/PSOeko alderdikoek ez dute bozketan parte hartu.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

8.- ALKATEAREN EBAZPENAK

Ezagutzera eman dira, Alkate jaunak 2013ko irailaren 23tik urriaren 26rarte emandako Ebazpenak.

Josi Insausti jaunak (H1): “En las resoluciones de Alcaldía aparecen la contratación de los servicios de comunicación y de la revista municipal. Batzordea ez da bildu eta horren ondorioz ez dakigu zein enpresa izan diren esleipendunak”.

Alkate jaunak (BILDU): “ MUNDU MIRA eta BIDERA enpresan hurrenez hurren izan dira. Gonbidatutakoen artean, besteak beste, FAKTORE eta TRUKE enpresak zeuden.

Aprobetxatu nahi dut esateko, historian lehenengo aldia dela, oposizioko taldeak Alkatearen Ebazpenak eskatu izana. Oso ondo iruditzen zait eta horrela lana egitea ere oso ondo iruditzen zait. Ez dudana ulertzen da orain arte zergatik ez den horrela egin.”

Josi Insausti jaunak (H1): Galdetzea?.

Alkate jaunak (BILDU): “Ez, Alkatearen Ebazpenak eskatzea modu desglosatu batean.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Niri esaten didazu?”.

Alkate jaunak (BILDU): “Ez bakarren batek ulertuko zuen.”

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

BERDINTASUN PLANA

Josi Insausti jaunak (H1): “Ez dakit horrela den ala ez. Kanean entzundako zerbait da. Udaletxe honetan, berdintasun plana egin behar da, kanpoko enpresa baten bidez?”

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Berdintasun plana egiteko planteamendu bat egin da. Dirulaguntza bat dago, EMAKUNDE erakundeak ateratakoa eta ELHUYAREK proposamen bat aurkeztu zuen, baina dirulaguntza jasoko den kopuruaren arabera geratu zen. Epe laburra zegoen eskatzeko eta ez genuen batzorderik egin. Oraindik ez da erabakirik hartu. Ikusiko dugu proiektuarekin jarraitu edo ez. Prozesua alderantziz egin dugu dirulaguntza eskatu ahal izateko. Gero aztertuko dugu plan hori egitea interesatzen zaigun ala ez.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Eskertuko nuke, lehenbailehen batzordea egitea gaia argitzeko, eta zergatik esaten dizut hau?. Etxe barruan baliabideak baditugu, izan ere berdintasun teknikaria dugu, aztertu beharko genuke

Beasainen berdintasun plana egin behar den (niri ez zait gaizki iruditzen) eta nork.”

Zeilia Herrador andreak (BILDU): “Batzerdean hori guztia eztabaidatuko dugu.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.